

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko, hasieran dirurik edukiko ez dugunez, gutako bakoitzak 225€ jartzea pentsatu dugu, hau da, 450€ guztira.



Diru honekin hainbat gauza desberdin egin nahi ditugu, adibidez, publizitatea, informatiko bat eduki eta play storeri ordaindu.

Martxan jartzeko jarri beharrekoa	
Maddi Urbizu	225€
Maddi Villalain	225€
<b>Guztira</b>	<b>450€</b>

Hasieran izango ditugun gastuak	
Play Store	25€
App Store	110€
Informatikoa	50€
Publizitatea	200€
Patentatzea	60€
<b>Guztira</b>	<b>445€</b>

Bestalde, aplikazio bat sortzeraketan, hainbat aspektutan merkeagoa aterako zaigu, izan ere, ez dugu garraiorik behar beraz, erosketa horretan eta suposatzen duen gasolinan ez dugu dirurik gastatu beharko. Gainera, etxetik lan egiterakoan eta bulegorik behar ez izatean aspektu horretatik dohain ateratzen zaigu.

Lanari dagokionez, oraingoz biok dena egiten saiatzea da plana, inongo banaketarik egin gabe. Argi ez daukagun gauza bakarria telefonoa nork erantzungo duen eta nork emaila da. Dena den, behin aplikazioa martxan hasterakoan, aztertu nahi dugun lehenetariko gauza da lana banatzearena, agian bat diru kontuekin jartzea egokiagoa izan daitekeelako eta bestea beste gauza batzuetan baina, hasiera batean ez da gure asmoetan sartzen.



Dena den, gure bezeroen iritzia eta kritikak jakitea garrantzitsua iruditzen zaigu. Horregatik, aplikazioaren bitartez inkesta moduko bat jartzea pentsatu dugu. Inkesta honen bitartez beraien balorazioa jasotzea da helburu nagusia eta norbaitek kritikaren bat edo proposamenen bat badu ere modu hontan bidal dezake. Honekin, gure aplikazioa ahalik eta kondizio hoberenetan eta aktiboen egotea da helburu nagusia.